

ERREPORTAJEA MINTXETAREN 10. URTEURRENA · GEHIGARRIA TXIKIBARREN
KULTURA NATHALIA MELLADOK RAPHAEL ABESLARIAREN KOROAN PARTE HARTUKO DU

BARRREN

ASTEKARIA

*Mintxeta,
10 urtez kirolzaleen topagune*

11ANKAKUAREN III. FERIA



TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARI ETA
ZERBITZU ELKARTEA

Elgoibarren, 2003ko irailaren 20an
ELGOIBARKO FORUEN PLAZA

11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara

- Txankakuaren III. FERIA
- Haurrentzako parkeak.
- TXU-TXU trenak.

12:30ean

Txartelak banatuko dira, arratsaldean esnezko opila eta txokoltinarekin trukatzeko.

16:00etan

Poniak, bigantxak, basurdeak eta hezitako oilarrak.

16:45etatik 17:15era

- Txankakuarekin merienda.

18:30ean

- Zozketa

60 euroko 5 sari banatuko dira. Boleto sarituak momentuan bertan egon beharko du.

Babesleak:



Industria, Merkataritza
eta Turismo Saila



Elgoibarko
Udala

HIZKUNTZA SOWzio K

IRAI LETIK HASITA 2003-2004 KURTSOKO IKASTAROAK

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
- Tri Talde murriztuak
- Ikastaroak atzerrian
- Multimedia gela

ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea
 - Teknikoa (makina-erreminta)
 - Komertziala
 - Nazioarteko proiektuak
- Goi-teknologiaren erabilera
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
- Prezio lehiakorrak

Talde beflok dendari, etxeoandre, baniluzenduak
154MItyg.kn



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Te1.943 744 040 Faxa: 943 741 654

ERNEELINTA
I ZINA
WISTIVTUA
INSTITUTO
DE MAGUINA
HEPARIENTIA

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



27 **Bazkide militanteak**

Aurreko astean esan genizuen Elgoibarko Izarratik 40 langile profesional inguru pasa direla azken hamaika urteotan. Baina profesionalen papera garrantzitsua izan bada, zer esan 40 urteotan Elkarte lanean jardun duten bazkide militanteen gainean? Txikitarik kobratu ez duen zenbat jende pasa da Elgoibarko Izarratik? Zenbat lan ordu sartu ote da 40 urteotan? Eta zenbat batzar? Bazkide militanteen ekimenari eta borondateari esker lortu du Elgoibarko Izarrak lortu duena.

Elkartea sortu zen une beretik ikusi zen herriak bat egiten zuela Elgoibarko Izarraren helburu eta asmoekin. Elkartea sortzeaz bat, 1.400 bazkide lortu zituen. Gaur egun ez daukagu hainbeste bazkide (600 inguru) baina daudenak Elkartearekin daude, laguntzeko prest. Bazkideei laguntza eskatu diegun guztietan, ez digute hutsik egin. Baina ez pentsa bazkideek bakarrik lagundu digutenik. Elkarteko bazkide ez diren herritar mordo batek makina bat aldiz lagundu digu. Estimatzekoa benetan.

Askok diote euskararen aldeko militantziak behera egin duela. Gaur egun zaila dela jendea euskararen aldeko elkarte batera erakartzea. Lehen jendea errazago animatzen zela horrelako mobidetara. Arrazoia izango dute seguruenik. Euskararen egoera eta gizartea bera asko aldatu baitira 20-30 urtean. Baina guk ondo dakigu oraindik ere jende asko dagoela euskara egoera hobean ikusi nahi duena. Akaso ez da lehengo lan egiteko modu bera izango, baina laguntza behar dugunean beti topatzen dugu laguntzeko prest dagoen jendea. Elkarteko bazkidea izan edo ez. Eta, hain zuzen ere, hauxe da aurrera egiteko indatTa ematen diguna.

Mila esker denoi, bazkideoi eta herritarroi. Seguru gaude hurrengo 40 urteotan ere elkarren ondoan izango garela, euskararen gerizpean.

Inumol Larrafiaga

iritzia



Ibarretxeren plana Elgoibarren

Joan zen asteko ostegunez, hilak 11, ikusi ahal izan genuen zertan zehazten diren Lakuako Tripartitoaren ildo politikoak Elgoibarren: ben-iro ere Plaza Handia polizi armatuek hartuta, armak prest, buruak estalita, jaun eta jabe. Entzutegi Nazionaleko agindua zutela eta ez zuten erakusterik nahi izan. Eskatzea ere! Eta hau zergatik? Iriaki Jaió preso ohiari ongi-etorria egin nahi zitzaiolako, egun berean atera baitzen espetxetik, 19 urte pasa ondoren. Adierazpen askatasuna ukatua, manifestatzeko eskubidea zapaldua, elkartzeko eskubidea debekatua, botoa emateko eskubidea ezeztatua. Hori da Madrilek Euskal Herrirako duen errezeta. Baina hona hemen Tripartitoko partiduak (PNV, EA eta IU) eta beraien esku dagoen Ertzaintza arduratzen direla Elkarte Autonomoan errezeta hori aplikatzen, Elgoibarren ikusten ari garen moduan. Herri bezala dagozkigun eskubideen ukazioan datza gaur egungo gatazka politikoaren muina. Egunez egunera eskubide demokratiko minimoak ere gure aurretik desagertzen ari zaizkigu, behelainoa zerura moduan. Zer eskaintzen du, beraz, Ibarretxek bere planarekin? Egurra, orain, eskubideak eskatzen dituzten horientzat (Ezker Abertzalearentzat). Hutsaren hurrengo direnean, Madrilekin negoziatu, Espainian lasai bizi ahal izateko (bere hitzei jarraituz). Bai, badakit gauza gehiago esaten duela proposamen horrek. Baina hori papera da. Elgoibarko Plazan ikusi genuena ez.

Pello Mendizabal



Kexak	
motz MOTZ	8
gehigarria	
kiRolAk	20
aGenda	24

Oharra

Inprimategiko arazo bat dela-eta, pasa den alean Mikel Dakintari eginiko elkarrizketa sakona gaizki aterata zen. Elkarrizketa erdia ezin zitekeenez irakurri, berriz argitaratzea erabaki dugu. Erdiko orrialdeetan aurkituko duzue. Barkatu eragozpenak.



Urruzunoren begi ezkutua

Nor naizen

"Nor naizen galdetuko diozu zure buruari, zure miresle sekretua naizela jakiten duzunean". Horrelaxe zioen zimur-zimur eginda aurkitu zuen paperezko zapi zuri haretan irakurri zitekeen lehen esaldiak. Begiak altxatu zituen berehala. Bere bekain beltz eta luzeak, rimelez armatuak, dotoreziaz zabaldu zituen bat-batean, bere bi begi borobil eta misteriotsuak plazaratuz. Kafetegiko bezero guztiak mihakatu zituen urduritasunez. Mihakatu baino gehiago, irentsi egin zituen, banan-banan, arnasik hartu gabe. Baina jende osoa bere egonean zegoen. Batzuk aldamenekoarekin berriketan, beste batzuk isil-isilik, hanburgesa eta kafe beltzez osaturiko gosariaz gozaten. Bakar batzuk, kafe hori, kafe+egunkari konbinazioa ikuskatzen eta beste bakan batzuk, kafe kikara behatzen artean hartu eta amets merke eta zoragarriak amesten. Ez zuen susmagarri suertatu zitekeen inor ikusten inon ere. Begiak itxi zituen. Hamabost segundu baino gehiago iraun ez zuen "rodeo visuar urduriak nekatuta utzi zuten. Bihotza azkarregi ari zen lanean eta bere taupadak barraren beste aldetik entzuteko modukoak zirela sentitu zuenean, izu beltz eta larri batek atzeko biltegiraino eramane zuen. Fruita kaxa baten gainean jarri zen. Amasa barru-barrutik hartzeak lasaitu zuen. Horrelaxe pasa zituen hurrengo minutuak, eskua poltsikoan sartu eta zapi zimur hura lisatzen ahalegintzen atzekaldean idatzirik zegoen bigarren esaldia ikusi zuen arte: "eta nor naizen galdetuko diozu zure buruari orain ere."

Eguzkiñe Aranberri

ELGOIBAR LARUNBAT ARRATSALDEETAN

...infernua eta paradisu, biak aldi berean. Batzuk kanpotik Elgoibarrera etorri eta dena egiteko libre sentitzen diren bitartean herritarrok infernua sartzen garelako baitirudi.

Larunbatetan Elgoibarren, arratsaldeko laurak, kanpotarrentzako herriko ateak zabaldu, zubiak itxi lasai ibil daitezten, baimena eman dena zikindu, apurtu, burrukan aritu eta nahi duten guztia egiteko... Eta bestetik, herritarroi, bertakooi, herri honetan garbi, txukun, lasai... bizi ahal izateko ahaleginean eta zergak ordaintzen ari garenoi herrian zehar pasatzeko bideak itxi, zubiak moztu, autobus geltokia herritik kanpo jarri... Zergatik eta modan dagoen herri honetara bisitari ugari etortzen direlako. Baina nolako bisitariak, beste inon nahi ez dituzten modukoak alegia.

Gure etxean kaltea dakarkigunari zailtasunak jartzen dizkiogu gure ondora etortzeko, atea ixten diogu nahi duena gure etxean egin ez dezan

Hau ez al da ba gure herria? Ez al da bidezkoagoa bertakooi babesa ematea, behar ditugunak egiteko (San Frantzisko kaletik pasa oinez, Maalatik pasa autoan), bi udaltzainek zapatu arratsalde osoa pasatu beharrean hesiaren ondoan autoei Maalara pasatzen ez uzten? Herritar bezala, ez da hau, nire ustez behintzat, udaltzainengandik espero dugun zerbitzua.

Herritarrok larunbat arratsaldeak geure herrian disfrutatze eskubidea aldarrikatzen dut, geure herria eta gu errespetatzen gaituen inori aterik itxi gabe, baina horren kontra azaltzen diren bai bertako bai kanpotarrei, gu bizi garen herrian arauak daudela erakutsiz. Errespetoz bizi garenok kaleak, zubiak, herria....zabalik nahi ditugu; errespetoz ez dabiltzanezi, horiei mesedez pentsatu, hesiak, isunak edo erratza eskuan jartzea.

A.A.
13.360.656-Z

Ba RREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
.943 74 41 12
Publizitatea:
. 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/fbarren
ARGITARATZAILA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhoa Andonegil ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLADORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Ederne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Efi ELGOIARREKO IZARIA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



ric kutxa
kleskez

It'DANOBAT
NPOUINAS HEMMENTA

2.1 GOIT1 4. EITARTA
GRUPO DANOBAT



- Urasandiko gazte koadrila batek esan digunez, Urasandiko parkean argiak falta dira: "Urasandiko parkean, ping-pong mahaia dagoen lekuan ez dago argirik. Oso ilun egoten da, eta gauzez ezin izaten dugu ping-pong-ean jokatu. Ingurune honetan farolaren bat jartzea beharrezkoa da".

- Herriko gazte ugari etorri zaizkigu Barren-era kexa bera adieraziz. Euren esanetan, Elgoibarren bizikletarekin ibiltzeko bide gorriak behar dira: "Gasolindegitik Madala aldera joateko, errepidetik joan behar da, eta oso arriskutsua da. Alkateak bide gorriak egingo zirela azaldu zuen, baina oraindik ez ditu egin. Lehenbailehen egin behar dira, gazte asko ibiltzen da bizikletan, eta errepidean arrisku handia dago".



- Herritar batek azaldu digunez, Xixilion kalean trafiko seinalizazioa oso eskasa da: "Herritarrok ezagutzen dugu Xixilion kalea, eta gutxi gorabehera, badakigu kotxearekin nondik nora ibili behar dugun, baina kanpotarrentzat sekulako arazoa da. Lurreko seinaleak ez dira ikusten, eta jendeak, noski, ez ditu errespetatzen. Xixilion kalean trafiko seinale egokiak jarri behar dira lehenbailehen. Sigmako zubia ireki arte, bertatik desbideratzen da trafikoa, eta susto bat baino gehiago hartu du jendeak dagoeneko".



- Artetxe inguruko bizilagun bat oso haserre etorri zaigu, Udaltzaingoak Madalako zubia ixteko daukan irizpidea dela-eta: "Larunbatetan Pedro Muguruza Etorbidera sartzeko Xixilion kaleraino joan beharra daukagu, herri osoan zehar buelta emanez. Baina zein irizpiderekin ixten dute zubia? Larunbat batzutan itxita egoten da eta beste batzuetan ez. Ez du batere graziarik egiten, buelta guztia eman ostean, Madalako zubia zabalik dagoela ikusteak".



Barreak, Birrak eta Barreak



1111 Intxetz 10 urte

1993ko irailaren 8an inauguratu zen Mintxetako kirol gunea. Athletic eta Realeko jubenil taldeek jokatu zuten lehen partidua Mintxetako futbol zelaiari. Realeko aurrelari bikotea bi elgoibartarrek osatu zuten; Mikel Elkoro Iribek eta Joseba Etxeberriak eta herritar batek, gaur egun Athleticeko jokalaria denak, izan zuten futbol zelai berriko lehen gola sartzeko ohorea. 10 urte pasa dira eta Udal Kirol Patronatuak egitarau zabala prestatu zuen urteurrena ospatzeko pasa den astean. Ramon Mujika, Udal Kirol Patronatuko zuzendariak hastapenetatik ezagutu eta parte hartu du Mintxetako proiektuan.



Mintxetako inaugurazioan parte hartu zuen jubenil mailako Realaren taldeak, tartean Etxeberria, Elkoro eta Rekarte.

FUTBOL ZELAI BATEN BEHARRA

Herria futbol zelairik gabe geratzea izan zela Mintxeta eraikitzeke arrazoi nagusienetako bat azaldu digu Ramon Mujikak, "Lerungo futbol zelaiak ez zen Udalarena, pribatua baizik eta jabeek industria-gunea bat eraikitzeke lurak saltzea erabaki zuten. Honetaz gain, Mugerza Krosak baldintza batzuk bete behar zituen, asfalto gutxiagoko ibilbidea izatea esaterako. Beraz, Mintxetako kirol gunea eraikitzeke erabakia hartu zen bi arazoei irtenbidea emateko".

ARKITEKTO KATALUNIARRA

Jorge Montañola arkitektoa izan zen Mintxetako diseinuaren arduraduna. 92ko Bartzelonako Joku Olinpikoetarako hainbat kirol eraikuntzetan parte hartu zuen arkitekto kataluniarrak, 3 fase edo epetan egiteko proiektua diseinatu zuen: "Duela bi urtera arte ezagutu dugun Mintxeta proiektuaren lehen fasea besterik ez da izan eta igerilekuekin amaitutzat eman dugu bigarren fasea. Hasierako proiektuan kirol instalakuntzak eraikitzea aurreikusten zen orain igerilekuak dauden tokian. Beste futbol zelai bat, tenis pista batzuk, frontoi bat edo golf-arekin zerikusia zuen zerbait eraikitzea ziren aukerak, baina Mintxetako dinamikari erreparatu, duela 3 urte egokiagoa litzatekeela aire libreko igerilekuak eraikitzea pentsatu genuen. Beste proiektu guztiak bertan behera geratu ziren". Hirugarren fasea falta da, beraz, igerilekuak eta Karakateko magalaren artean dagoen lur zatian egin beharrekoa, alegia: "Oraindik ez dakigu zer erabilera emango diogun, baina

igerilekuentzako lekua gehitzea izan daiteke egokiena". Bestalde, proiektua aurrera zihoan heinean, aldaketa batzuk ere egin zituzten, aurrera begira gimnasio baten beharra zegoela aurreikusi baitzuten. 94ko martxoan hasi zen martxan gimnasioko gela: "Denborak arrazoia eman digu, herritarrei kirol eskaintza zabalagoa emateko aukera eman baitugu. Hasiera hasieratik ikusi genuen Mintxeta ez zela futbola eta atletismoaren inguruan mugitzen zen jendearentzat bakarrik izango. Muskulazio gela adibidez, alor askotan oso aberasgarria izan da herritarrentzako eta sozializazioa areagotzeko

balio izan du. Ondoren, fitness eta kardio gelak egin genituen. Step-a, aerobika eta spinning-a egiteko gela izan da eraiki dugun azken gela".

EZTABAIDAK

Proiektu berri ia guztiek sorrarazten dituzte eztabaidak eta zalantzak hastapenetan eta Mintxetak ere izan zuen berea. "Belar artifiziala bai edo ez eztabaida sortu zen prentsan, baina kasu honetan ere denborak arrazoia eman digu, Euskal Herri osoan nagusitzen ari den joera baita belar artifizialeko zelaiak eraikitzearena". Atletismo pista ere hainbat borroka sorrarazi zituela aitortu digu Mujikak, "hasierako proiektuko pista ez zuen errebuelarik. Unben bailara guztirako atletismo pista eraikitzekeoak ziren eta administrazioko maila batzutan ez zuten begi onez ikusten 6 kilometroko distantziara dauden bi herri atletismo pista bana izatea. Pista eraikitzekeo lekua egonik eta kostu aldetik ere aurrekontua ez zenez gehiegi handitzen atletismo pista osoa eraikitzea lortu genuen".

● **"Hasierako proiektuan kirol instalakuntzak eraikitzea aurreikusten zen orain igerilekuak dauden tokian"**

● **Ramon Mujika**



herriko kirolzaleen topaune



Realaren aurka jokatu zuten C.D. Elgoibar taldeko beteranoak.

3.500 PARTIDUTIK GORA

Jokalari eta talde askok zapaldu dute Mintxetako futbol zelaiko belarra 10 urteotan. "Atera ditugun kalkuluen arabera, 3.500 partidutik gora jokatu dira Mintxetan federatu mailan. Federatu gabekoak ere asko izan dira. Futbol 7 txapelketa 94an hasi zen eta 40 taldetik gora aritu zirela gogoratzen dut. Honetaz gain, nesken futbol taldearen sorreraren lekuko ere izan da Mintxeta". Mugerza Krosa 93ko urtarrilean jokatu zen lehen aldiz Mintxetan, artean inaguratzeko egon arren. "Krosa egiteko ingurune ezin hobea da eta Leruneko zirkuitoak bere enkantoa zuen arren, Mintxetako erosotasun gehiago eskaintzen ditu".

Futbola eta atletismoaz gain beste hainbat aukera eskaintzen ditu Mintxetako, "parapente erakustaldiak izan dira, artzai txakur alemaniarren erakusketak, arku tiraketa txapelketak eta beste hainbat ekintzetarako erabili izan da kirol gunea".



Ospakizunak

Udal Kirol Patronatuak hainbat ospakizun eta kirol ekintza antolatu zituen Mintxetako Kirol Gunearen 10. urteurrena ospatzeko Mintxeta Atletismo Taldearen eta C.D. Elgoibarren laguntzaz. Hilaren 11n Realak eta C.D. Elgoibarko jokalariek ohien arteko partidua ikusi ahal izan zuten Mintxetara hurbildu zirenek. Kodro, Lopez Ufarte, Luis Perez, Periko Alonso, Fuentes eta Guruzetak jokatu zuten talde txuri urdinean eta Arakistainek zuzendutako C.D. Elgoibarren, berriz, Xabi Alonso, Gaizka, Bedaio, Yerobi, Arriola edo Beitia aritu ziren, besteak beste. Realak 2 eta 1 irabazi zuen. Hilaren 12an, berriz, atletismo jaialdi aparta antolatu zuten. Bertan, Mammo Wolde atleta etiopiarra eta Juan Mugerza omendu zituzten beraiei eskainitako mural eta plaka bana bistaraziz. Wolderen murala Elshadai Negash kazetari etiopiarrek bistarazi zuen. Kazetari honek bere herrikiideari buruzko bideo bat egin du eta Kultur Etxean aurkeztu zuen irailaren 10ean. Omenaldien ostean Naroa Agirre donostiarrak pertiga jauzi erakustaldia egin zuen Jonatahan Garcia arrasatearrarekin batera. Kirol hau Mintxetan ikus zitekeen estreinako aldia izan zen eta ikusmina piztu zuen herritarrengan. Naroak erakustaldi bikaina egin eta 4 metro eta 30 zentimetrora zegoen hezia zeharkatzea lortu zuen. Parisko Atletismo Mundialetan ezin izan zuen 4,25 zm.ko marka gainditu. 100 metrotako lasterketan Orkatz Beitia ondarrutarra nagusitu zen (11:06) eta Juan Carlos de La Ossak zergatik izan zen Parisko Mundialetan 5.000 metrotako lehen europearra frogatu zuen. Errelebo lasterketa bitxi bateko azken errelebo izan zen eta lehen postuan iritsi zen helmugara.



Iñaki Jaiori ongi-etorria egin zitzaion joan zen irailaren 11 n

Ertzantzaren presentzia zela-eta, Plaza Handian izan behar zuen ekitaldiak Gaztetxean izan zuen eszenatokia

19 urte kartzelan pasatu ostean, joan zen ostegunean, irailaren 11n, itzuli zen etxera Iñaki Jaio. Honelakoetan ohikoa den moduan, elgoibartarrek ongi-etorria antolatu zuten. Arratsaldeko 20:00etan zen zita Plaza Handian, baina ordurako Ertzaintzaren hiru furgoneta zeuden bertan. Plazan zintzilikatutako kartelak kendu, eta bertara inguratu zen jendea grabatzen jardun zuten. Hala ere, herritarrek ez ziren beldurtu, eta jende asko bildu zen Plaza Handian. Iñaki Jaioren gurasoak, senideak eta lagunak ez ziren falta izan. Besarkada artean jaso zuten Iñaki. 20:00etako kanpaiak jo zuen une berean, Ertzaintza jendea zegoen tokira



Jende ugari bildu zen Iñaki Jaioren ongi-etorrian.

hurbildu ziren, ongi-etorria bertan behera utziz. Tentsio uneak bizi izan ziren orduan, baina ez zen gertakari larriagorik gertatu.

Audientzia Nazionalaren agindua

Arnaldo Otegia Ertzainekin hitz egin ostean, Audientzia Nazionalako agindua zeukatela jakinarazi zien Plazan bildutako guztiei, eta norbait atxilotu ezkerreko, zuzenean Madrilera eramango zutela. Hau guztia sahiestearren, Iñaki Jaioren ongi-etorria Gaztetxean egin zen.

Plaza Handiko jende guztia hurbildu ez arren, Gaztetxea bete egin zen. Txalo zaparrada artean hartu zuten Iñaki Jaio Gaztetxean. Haritz Dantza Taldeko bi dantzarik aureskua dantzatu, eta lore sorta bat eman zioten. Iñaki Jaiok, kartzelan laga dituen presoak gogoratu ostean, eskerrak eman zizkien Gaztetxean bildutako guztiei. Datorren irailaren 27an egingo diote omenaldia Jaiori.

Euskotren enpresak Debabarreneko autobus lineak aldatu ditu

Elgoibartik Bilborako ibilbidea Euskotren eta Bizkaibus enpresek hartu dute



DESA eta Euskotren garraio enpresek sinatutako akordio berri bat dela-eta, Debabarreneko autobus lineak aldatu egin dira. Beraz, joan zen irailaren letik aurrera autobus zerbitzu eta ordutegi berriak daude martxan. Aldaketa hauek Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publikoen Departamentuak, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek onartu dituzte.

Aldaketa hauen helburua autobus zerbitzuak gehitu eta garraio publikoa hobetzea da. Bi enpresa hauen akordioa dela-eta, ondorengo lineak aldatu dira: Durango-Zumaia, Eibarko Udalbusa, Mutriku-Deba-Mendaro, Mendaro-Soraluze, Deba-Itziar-Zumaia, Ermua-Azpeitia eta Elgoibar barneko autobus zerbitzua. Era berean, Ondarroa-Mallabia

linea ere aldatu egingo da, Debara doazen trenekin bat egin ahal izateko. Bestalde, asteburu gauetako autobus zerbitzua ere, Euskotrenen esku geratuko da.

Elgoibar-Bilbo linea

Elgoibartik Bilborako ibilbidea PESA enpresaren esku zegoen lehen, baina irailaren lean sinatutako akordioa dela-eta, Euskotren eta Bizkaibus enpresek hartu dute orain. Beraz, ez da Elgoibartik bilbora zuzenean joateko aukerarik izango. Lehendabizi Euskotrenen urbanoa hartu beharko da Eibarreraino, eta bertan Bizkaibusen autobus. Ordutegi berriak eskuratzeko 902 54 32 10 (Euskotren) edo 902 22 22 65 (Bizkaibus) telefonoetara deitu daiteke.

Sigmako zubia azaroan irekiko dute

Bestalde, Pilarreko zubia urrian amaituko dute

Sigmako zubia hasi da poliki-poliki forma hartzen. Barandilak jarri dizkiote dagoeneko, eta gutxi gorabehera ikus daiteke amaieran nolakoa izango den. Migel Anjel Mujika Hirigintza Zinegotziak azaldu dizkigu zubiari egingo dizkioten aldaketak: "Zubi azpiko habeak apur bat altxatu eta Santa Ana Kalearen maila berean jarri dute zubia. Zabalera berdina mantendu da, baina oinezkoentzako espaloia apurtxo bat zabalagoa izango da". Udaletxetik jakinarazi digutenez, azarorako amaitzeko asmoa daukate.

Pilar eta Merkatu Plaza elkartzen dituen zubiko obrak, bestalde, martxa onean doazela azaldu digu. Joan zen abuztuan jarri zuten zubi




zaharraren alboan metalezko estruktura berria, eta aste honetan bertan hasi dira pasabidea jartzten. Sarrera eta irteera guneak egin ostean, erabiltzeko moduan izango da. Migel Anjel Mujikak esan digunez, urriaren bukaerarako amaitzea espero dute.

Txankakua Merkatari Elkartearen jaialdia izango da Plaza Handian bihar, irailak 20

Elgoibarko merkatariak kalera aterako dira, bihar, irailak 20. Goizeko 11:00etan hasi eta arratsaldeko 19:30ak arte, Txankakua Merkatari Elkartearen jaialdia izango da Plaza Handian, eta herritarrek euren gustuko produktuak ikusi eta erosteko aukera izango dute. 50 merkatari osatzen dute Txankakua Elkartea, eta horietatik 20 aterako dira Plaza Handira.

Aurreko **bi urteetako** esperientzia ikusirik, hirugarren urtez jaialdia antolatu du Txankakua Merkatari Elkarteak. Luvik zapata dendako Maria Eugenia Gonzalez da Elkarteko presidentea, eta berak esan digunez, helburua jendeak herriko dendak gertuagotik ezagutzea da, horregatik aterako gara kalera.

11 urte bete ditu dagoeneko Txankakua Elkarteak, eta 50 bazkide inguru dauzka gaur egun. Horietatik 20 merkatari jarriko dute euren postua Plaza Handian.



Zozketa

Arratsaldeko 18:30etan 60 euroko 5 sari zozketatuko dira. Irailaren 15 eta 20 bitartean elkarteko edozein dendatan eta Plaza Handiko ferian erosten dutenek, zozketan parte hartzeko boletoak jasoko dituzte. Saria eskuratzeko, boleto sarituak Plaza Handian egon beharko du zozketa egiten den momentuan.

Debegesak arrisku labordeen prebentziorako ikastaroak antolatu ditu

Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarteak (Debegesak), arrisku labordeen prebentziorako ikastaroak antolatu ditu. Zazpi programa eskainiko ditu guztira; iaz baino bi ikastaro gehiago. Aurtengo eskaintzak akreditazio ofiziala duten bost kurtso bereganatzen ditu.

Arrisku labordeen prebentziorako goi mailako kurtsoa emango da lehenengo. Ondoren, enpresa txiki eta ertainetako teknikarientzat, (erdi mailako kurtsoa antolatu dute). Era berean, arrisku labordeen prebentziorako auditori kurtsoa ere eskainiko du Debegesak nahi duen edonorentzat. Kurtso hau egiten dutenek auditoria enpresak sortzea izango dute helburu. Azkenik, eraikuntza obretan segurtasun koordinatzaile titulua lortzeko aukera ematen duen kurtso bat ere eskainiko dute. Interesatuak 943-729280 telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskuratu ahal izateko.

Antena berria jarri dute Altzolako telebista arazoak konpontzeko

Altzolako Bailegoitxi auzoan telebista antena berria ipini dute, beraz, orain arteko telebista arazoak amaitu egingo dira. Altzolarrek ondorengo sintonietan ikusi ahal izango dituzte telebista kateak: Canal + (UHF 22 kanalean), Tele 5 (UHF 24 kanalean), TVE-1 (UHF 29 kanalean), ETB 2 (UHF 32 kanalean), Antena 3 (UHF 34 kanalean), TVE 2 (UHF 43 kanalean) eta ETB 1 (UHF 46 kanalean).

Tabako paketeetan kantzer irudi gogorak ikusiko dira laster TABAKOA ERRETZEA DEBEKATU EGIN BEHARKO AL LITZATEKE?



MARIA OLIVAS
50 urte, autonomia

Debekatzea zaila da. Paketeetan kantzerraren irudiak jartzea gogorra da, baina agian jendea espabilatu egingo litzateke. Nik ez dut erretzen, baina etxean izan dugu tabakoarekin arazoa, eta zerbait egin beharra dago.

LEIRE EIZAGIRRE

24 urte, telebistako kamara

Nik ez det erretzen, baina ilegalizatiakin ez det uste ezer lortuko danik, nahi dabanak eskuratuko du tabakua. Onena jendia mentalizatzea izango zan, baina irudixak jartzia oso gogorra da.



JOSE LUIS NIEBLA
58 urte, artxibo arduraduna

Debekatu ez. Bakoitza bere buruaren jabe da eta berak erabakiko du. Txarra baldin bada ez dezatela saldu. Niri tabakoak oso ondo egiten dit, estresa eta nerbioak kentzen dizkit, eta oso ondo sentitzen naiz.

ANGEL NUÑEZ

35 urte, makinako langilea

Ez zait ondo iruditzen debekatzea. Jendea kontzientziatu egin behar da, erretzeari lagatzeko, baina kantzerraren irudiak jartzea oso gogorra iruditzen zait.




BRAULIA MORENO
48 urte, etxeandrea

Bai, beste droga bat bezain txarra baldin bada debekatu dezatela. Erretzailea naiz, eta horrelako irudiak ikustean bi aldiz pentsatuta hartzen dut zigarroa.

EDUARDO AYESTA

41 urte, gerentea

Debekatuz batzuk utziko dute, baina askok desafio bezala hartuko lukete. Lehen erretzailea nintzen, eta ondorioak etorriko dira. Irudiak jartzea gogorra da, baina istripu irudiekin gertatu zen bezala funtzionatu dezake.



**IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10 EKO BEHERAPENA**

**«emi» mafflptem tetpulo4 16 ntedete cuenehl eta
atiMam wi,tclea tewuioa 18 witte dete**

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

nola ALDATU diren gauzak!



1945. urte inguruan hasi ziren etxebizitza hau eraikitzen, eta etxearen eskeletoa egin ostean, denbora luzean egon ziren obrak geldirik. Hasieran etxebizitza honek bi solairu bakarrik zeuzkan, eta urte ugari egon zen honela. Gerora gehitu zizkioten etxebizitzari gainontzeko solairuak. Begira zein itxura zeukan garai hartan Pedro Muguruza Etorbideak. Etxebizitza honen azpiko lokaletan Elgoibarko tailer mekaniko batzuk zeuden. Argazkiaren eskuin aldean Etxe-Zuri etxea ageri zaigu, ezker aldean berriz, almazen lokal bat eta Toletxeko baserria ikus ditzakegu. Aipatu beharra dago, bestalde, argazkian ageri zaigun etxebizitza hau izan zela Pedro Muguruza Etorbideko lehenengo etxebizitza.


2003. urteko argazki honetan zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Begira nolako etxebizitza dotoreak eraiki dituzten Pedro Muguruza Etorbidean! Denda, taberna, almazen eta lantoki asko daude kale honetan, eta jende ugari bizi da bertan. Asteburuetan gazte asko biltzen da kale honetan, izan ere, martxa handiko gunea da-eta. Argazkian ikusten den bezala, gazteentzako taberna garrantzitsuenetarikoa dago bertan, bere terraza eta guzti! Herri Antzokia ere Pedro Muguruza Etorbidean dago, eta jende mordo hurbiltzen da asteburuetan pelikulak ikustera. Dударik gabe, denbora ez da alperrik pasatzen.

Juanito Gorostiza



V. URTEURRENA

1998ko irailaren 22an, 70 urte zituela hil zen RAFAEL PEREZ HERMETXEOren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian astelehena, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





210 ikasle matrikulatu dira aurten LOGSE Batxilergoan, iaz baino 45 ikasle gutxiago

Ikastolan aurten ez da LOGSE Batxilergoko 1. mailarako talderik osatu

2003-2004 ikasturtean, 210 ikasle matrikulatu dira Elgoibarko ikastetxeetan. Dakizuen moduan, Elgoibar Ikastolan eta Herri Institutuan dago LOGSE Batxilergoa ikasteko aukera. Hala ere, aurtengo kurtsoan Ikastolan ez da LOGSE Batxilergoko 1. mailarako talde berririk osatu. Aipatu beharra daukagu bestalde, joan zen astean argitaratutako matrikulazio datuetan oker bat egin genuelo. Institutuko DBH 1. mailan 23 ikasle matrikulatu zirela jarri genuen, baina 33 izan dira. Ondorengo tauletan batu ditugu LOGSE-ko matrikulazio datuak.



INSTITUTUA

Batxilergoa 1. maila	ikasleak
Natur eta Osasun Zientziak	58
Giza eta Gizarte Zientziak	19
Teknologikoa	12
Batxilergoa 2. maila	ikasleak
Natur eta Osasun Zientziak	33
Giza eta Gizarte Zientziak	28
Teknologikoa	16
Mixtoa (Zientifikoa eta humanistikoa)	19
Guztira	185

IKASTOLA

Batxilergoa 2. maila	ikasleak
Natur eta Osasun Zientziak	5
Giza eta Gizarte Zientziak	11
Teknologikoa	9
Guztira	25

Tianjin Proiektuko txinatar irakasleen lehen ikastaroko amaiera ekitaldia ospatu zuten IMHn joan zen irailaren 12an

Makina Erremintaren Institutuko eta Proschools-eko (AFMk sortutako elkartea) zuzendariak Tianjin Ikastetxeko zortzi irakasleei banatu zizkieten kurtso amaierako diplomak joan zen irailaren 12an. Irakasle hauek, hiru hilabetetan zehar Mantenimendua eta Muntaiari buruzko prestakuntza jaso dute. Bigarren taldeak, joan zen

astelehenean, irailaren 15ean, ekin zion ikastaroari. Talde honek Diseinu eta Fabrikazioari buruzko ikastarora egingo du abendura arte.

Proiektuaren lidergoa Proschools-ek darama, eta helburua, Txinako Tianjin Ikastetxe Teknikoa handitzea, egokitzea eta Prestakuntza Iraunkorreko Saila martxan jartzea da.



Malape taberna
Orain astegunetan
egunero 6:00etan
i rekitzen dugu
San Frantzisko, 60

17A "k OgrA,5
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX



gyle

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 4. gehigarria

111111111•1141•1441111114114111144••••1••1••111111111441141

Azkenaldian ezagun egin da Takolo pantaila txikian, Isabako elur hotzetan lehenbizi eta Euskal Herriko jaietako zerbeza eta kalimotxo artean gero. Ziur gaude uda honetan amona gustura asko eduki duela besaulkian eserita berari begira. Gu barrez leheritu gara berarekin. Ea zuek ere ondo pasatzen duzuen!

Nolatan animatu zinen Basetxean parte hartzera?

Gabonetan paruen neuen ta lagunartian brometan komentetan hasi ginen Basetxeara jun biher nauela...ta azkenerako animau in nintzan.

Eta hortik programa bat aurkezterainoko pausoa nola gertatu zen?

Ba neukpe flipeu in neban! Egun baten deitxu in soskuen ia Jaiak aurkeztu nahi geuen esanez. Ni oindik paruen neuen ta baietz esan neban. Esperientzia barri bat.

Zer da "Berriro Jaiak programa aurkezteak eman dizun onena? Eta txarrena?

Onena, lanbide berri bat ezagutzeko aukeria ta lñigo bezelako lagunak. Ta txarrena...egixa esan ezer ez, jendia batzuetan plasta xamar jartzen dala, baina bestela, txarrik ezer ez.

Bada "Basetxea" bezala programa batean ezagun egin eta horregatik bakarrik aurkezle izatera pasatzea ez dela bidezkon pentsatzen duenik. Zer iritzi du horretaz?

Mundua injustiziaz beteta dauela. Neu ez naz lan honen bila juan, baina gustura ibili naz.

Gomrri

Gehixen juergetan igartzen dou, batez be herri txikixetan jende askok ezagutzen gaitxu ta batzuetan agobixo puntu batera heldu zaitkezke.


Aurrera begira zeintzuk dira zure planak?

Hau ez da nik ikasi dotena, ez deko zerikusirik, baina neuk beti esaten dot gauza danak ahal dan bitxartian aprobe txau bihar diala, gero jai.

Amona gustura edukiko duzu!

Amuma oso gustura, emozionauta beti.

Ander Zearra "Takolo" "Basetxer-ko ilabazleci



Festarik onenak: Itziarkuak
Berriro Jalak-eko aurkezlerik onena: Lorea
Bethfitu zure burua 3 hitzetan: Zintzua, jatorra eta alaixa
Bertute bat: Irekixa naiela
Akats bat: Arin berotuten naia, sentido danetan
Nor miresten duzu? Idigo Aizpurua
Bidaia bat, nora? Jamaikara
Hil eta gero? Lur azpizen pakial
Bizio hat: Jatia
Emakume bat: Amuma
Giion hat: Igor anaia
Piropo bat: Pottola!!!, neska danei esatzat.
Botila erdi hutsa ala erdi betea? Edaten hasi aurretikan erdi betia, gero guztiz hutsa!!

Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? Bixak, barra librell
Berriz jaioz gero ier izan nahi zenuke, mutlla ala neska? Mutilla, neskak ikusteko, askoz politkauak zarie ta!
Inolz esan dizuten gauzarik politena? Enaz akordetan, sikutian nau aspaldixen...
Bizitza honetan jakin heharreko lekzio garrantzitsuena? Ondo bizi biher dala lagun haten bikoteaz malteminduz gero?
Intentauko neban ez enamoretan
Jeloskorra al zara? Eztot uste
Faltan sumatzen duzun norbait? Ama
Sobran sumatzen duzun norbait? Euskal Herrixan kontra dabizen danak
Inolz esan al diozu inori zailut"? Bai

"Amuma oso gustura dekot, emozionauta beti"

BARRERen

ASTEKARIA

elkarrizketa



INAUTERIAK, HERRIKO FESTAK... EDOZEIN AITZAKIA DA ONA UMOREARI BIDEA IREKITZEKO. HORRETAZ OSO ZIUR DAGO MI KEL DAKINTA, BERE USTEZ, BARRERIK EZ EGITEA ARAZO OSO SERIOA DELA AITORTU DIGUN ELGOIBERTARRA. TXISTE KONTAKETAN TREBEA, KARIKATURETAN ABILA...BI HITZETAN ESANDA: UMOREAN MAISUA. EROTURA DAGOELA PENTSA LEZAKE ZUEN NORBAITEK, BAINA BERAREKIN BI HITZIKATU ORDUKO EROKERIARIK HANDIENA SERIOETA TRISTE BIZITZEA DELA KONTURATU O DA EDOZEIN. EZ DA LEKZIO MAKALA! ETA UMORE AGORTEZIN HORREN SEKRETUA NON DAGOEN? BERTSOLARI HARK ZIOEN BEZALA: "BERE BURUAI PARRE ITEN DIO, BURLA BATZUEK TARTUKO; HORREGATIK DUESKUBIDEA BESTEEI PARRE; TEKO!"

Vike Dakinta

"IXISTE KONTALARI ON BATEK BEHAR DUENA BARRE EGITEKO BATERE GOGORIK EZ IZATEA D

EZAGUNA DA HERRIAN MIKEL DAKINTA, ETA EZ DA HARRITZEKOA. ZIUR ZUK ERE IKUSI IZAN DUZULA MOZORRO BITXIREN BAT SOINEAN, KANTUAN ETA BARREZ LEHERTZEN. ETA BARRE EGITEA IA-IA ARTE BILAKATU DEN MUNDU HONETAN, PENTSA BARRE ERAGITEA ZER IZAN BEHAR DEIVII ZURI EZ AL DIZU INOIZ TXISTERIK KONTATU? BA, PENA DA. HURRENA, MAHATSAK BELARRIETAN ZINTZILIK IKUSTEN DUZUN BATEAN ZOAZ BEREGANA. ZIUR TXISTEA TXARRA IZANDA ERE BARREZ LEHERTUKO ZARELA!



Mikel Dakinta

“Barre egiten ez duco

I Zerk egin zaitu ezagun herrian?

Fama txarra oso erraz irabazten da, ona baino askoz errazago. Urte askoan zerbitzari lanetan aritu nintzen eta ezin izaten nuen San Bartolomeez eta inauteriez gozatu; baina behin irteten hasi nintzeanean... Gainera, txisteen munduan ere ibili izan naiz eta beti gustatu izan zait zoroarena egitea.

Noiztik duzu txistek kontatzeko afizioa?

Betidanik gustatu izan zait gauza guztien kontura barre egitea. Txikitan karikaturak egiten nituen baina txiste kontaketa beranduago hasi nintzen, Kartutxon zerbitzari nintzela.

Eta oraindik karikaturak egiten jarraitzen al duzu?

Bai, noizean behin egiten ditut baina lehen baino askoz gutxiago.

Jende aurrean ere aritu zara inoiz, ezta?

Bai. Jende gehien begira izan nuen aldiatiko bat Baserritarren egun batean izan zen. "Duo Plaentxi" k jo behar zuen, eta plaza jendez gainezka zegoen. Club Deportiboko rifa kantatu behar zuten eta nik bitartean txistek kontatu behar nituen. Neukan atxurrarekin kontatu beharreko 4 txisteetatik 3 bakarrik amaitu ahal izan nituen!

/ Zer behar du txiste kontalari on batek?

Nire ustez juxtu guztiz kontrakoa: barre egiteko batere gogorik ez izatea.

I Inoiz ez al zaizu bururatu komiko izatea, txiste kontaketa profesionalki aritzea

Ez, ez, keba. Nik herrian gozaten dut, festa giroan.

I Juergazalea zara. Urteko parrandarik onena?

Txiki eguna, dudarik gabe. Orain jada parrandarako ohitura galtzen ari naiz, baina oso oso parranderoa izandakoa naiz.

Nondik dator mahatsak belarrietatik zintzilik eramateko ohitura bitxi hori?

Hori ere zerbitzari izateari utzi eta geroko istorioa da. Txiki egun batean Jose Inazio Gurrutxaga "I■Taka", "Fonta" eta hirurok gaupasa eginda elkartu ginen. Generaman mozkorrarekin juxtu-juxtu ginen ibiltzeko gai eta zezenaren aurretik korrika egiterik ez genuenez Merkatu Plazara joan ginen zigala batzuk gosaltzera. Jan bitartean "Naka" mahats-sorta, brinoi batzuk eta beste zenbait gauza erostera bidali genuen eta hura izan zen kalera mahatsak belarrietan zintzilik genituela irten ginen lehengo aldia.



"INOIZ EZ ZAIT BUR ARITZEA; HERR

n egunean Olason egongo nalez"



politik. Duela 19 urte, inauterietan, neska batekin lehen aldiz irten nintzen, eta duela bost, neska berarekin ezkondu nintzen egun berean, inauterietan. Eta nola ez, bi egunetan mozturuta irten ginen biok kalera.

Barrez lehertu zaren une bat?

Asko, baina, bereziki, "Ñaka" eta "Fonta" rekin pasatako Txiki Egun guztietan.

I Inork zurekin edo zure kontura barre egin duen momenturik?

Nire kontura...horiek ez dakizkit, baina suposatzen dut asko izan direla. Eta nirekin...horiek ere asko, lehen kontatu dudun Baserritar Egun hartan, adibidez. Ez zait gustatzen jendeak niri txalo jotzea, mila aldiz nahiago dut jendea nirekin barrez lehertzea.

Beti adarra jotzen eta txiste kontari aritzen zara, baina benetan nolakoa da Miguel Daquinta?

Egia esan, ez dakit nolakoa naizen. Uste dut beti berdina naizela, kanpoan eta barruan, etxean eta kalean. Oso alaia naizela uste dut, ez zait seriotasuna batere gustatzen.



"ÑAKA" ETA "FONTA" GONBIDATUKO NITUZKE T)(IKI EGUNERA."

Bukatzeke, txiste bat kontatuko al zenidake?

Nire gehien gustatzen zaizkidan txisteak inori gustatzen ez zaizkion horiek dira. Adibidez hau: -"tengo un perro que diu papa y mama.

-vaya tontería, yo tengo un bote que diu melocotOn en almibar!"

rU T)(ISTE KONTAKETAN PROFESIONALKI GOZATZEN DUT NIK, FESTA GIROAN"

Aurten txupinazoak edo, hobeki esanda txupinazoek, eman dute zeresanik. Zein da zure iritzia honen inguruan?


Nire ustez txupinazoa bat eta bakarra izan behar da, eta eguandik ordubatean baino goizeko zazpitan nahiago. Zenbat eta lehenago hasi, hobe!

Inauteriak ere bereziak omen dira zuretzat.

Bai, bi anekdota ditut inauterietan, oso



motz motzian



Zer lirateke San Bartolomeak Txiki Egunik gabe? Ez lirateke San Bartolomeak izango

Nor gonbidatuko zenuke gustura Txiki Eguna? "Ñaka" eta "Fonta"!

Zer kendu eta zer gehituko zenieke Elgoibarko jaiari? Kendu, ezer ez, jai batzuei ezin zai ezer kendu. Eta gehitu, beste zazpi egun eta trikitixa asko, faltan sumatzen ditut lehengo erromeriak.


Zer pentsatzen duzu jende serioaz? Arazo serio bat dela ez barrerik egitea. Nik barrerik egiten ez dudana egunean, uste dut Olason egongo naizela.

Komiko bat? Eugenio

Munduari umorea falta zaiola uste duzu? Bai, asko eta gero eta gehiago. Aurtengo Txiki Egunari ere alaitasuna faltatu zaiola iruditu zait, agian karka bat bihurtu naizelako izango da baina...

Eta azkenik, zer du Athletic-ek beste taldeek ez dutenik? Ez dakit, baina jendea ez da Athletic-eko egiten, Athletic-eko jaiotzen da. Nire ustez sentimendu horrekin jaiotzen da, nik ezin izaten diet malkoei eutsi telebistan Athletic-en historia ikusten dudana bakoitzean.

Desteen ahotan



Todor COIVO "Gu biok lotzen gaituen nolabaiteko "ezkongaitasun" sano bat dela medio, ezinezkoa egiten zait atletizale amorratu honen izaera lau lerrotan laburtzea "Dakin"en bat-bateotasun alaia eta dibertigarria ezagutzera emateko. Egun normalak jaiegun bilakatzeko gai da apaingarri bitxiak jantziaz, txiste edo oroitzapenen kontaktaz. San Bartolometako "atseden" egunak edota edozein domeka gau izan ditu unerik aproposenak limoi azal batekin hortzak egin edota paperezko serbiletak belarrietan jarriz jendeari barrea eragiteko. Zenbat aldiz (ile gehiago zaukagun garai haietan) gitarrak eta Bafliak hartu eta tabernaz taberna, Gestorako txosnan edo Gaztetxian herritarrak girotu izan ditugu... eta "Dakin" zuan zirikatzen ninduen!

Baina ongi ezagutzen dugunok badakigu azal honen barruan zer dauan: bizitasun handiko pertsona, burugogorra ("esne txarra" ere badu), metodikoa baina oso erreflexiboa, arazoei seriotasunez aurre egiten dakiena eta egoerak eskatzen badu burua galtzen ez duena. Abertzalea, solidarioa, bihotz onekoa eta bere lagunaren benetako laguna, musika zalea (nahiz eta belarri gogorrekoa izan), piper berde frijitu zalea... Jende askok proposatuko luke Dakintari

monumenturen bat egin edo kaleren bati bere izena ipintzia. Nik ez, nere ustez (ez naiz horrela pentsatzen duen bakararra) berak gehien maitatzen duen Anak, bere bizilagunak, izango lituzke merezimendu guztixak, eguneroko xumetasunean benetako euskarri eta ezinbesteko laguniza baitu mendaroar jator honengan. Aupa Lakui! (barkatu Patxi Salinas)"

PariSfik nthorren autsta dat nalz

L H 5 maila - Pilar Ikastetxea

Txistea

S...u atek esafen di,o
 - Kapi,fai,na 9uda *9aIdu* du9u!
 Efa eranzfufen di,o kapi,fai,nak:
 - Ba joan *bila!*

Ai,fa Sanfua efa ebizfari, baf ebizara doaz efa ebizfari,ak esafen
 - Txori, handi, baf i,kusfen baduzu esan!
 Ai,fa Santuak fxort, handi, baf l,kusfean bonakoa esafen du:
 - Al,ba Pi,os!



- Alba Zanguitu
- Beatriz Alvarez
- Beflat Arriola
- Eduardo Santamarta
- Lorea Azpitarte
- Ione Iraola



Ipuina: TRIKUA ETA HARTZA

Bazen bebiz aranfarIqabeko fri,kua. oso beldurfi,a zen, denek jan *nabi*, zufelako. qun bafean bariz bafengana joan zen. Tri,kuak barizari, besfe haz eskafu
 Hartzak anirnaleki,n haz zuen efa frluak ez zuen *beldurri,k* izan anirnalek e,san zi,ofelako ez zuefa(a, jany.
 Azkenean pozaren pozez fri,kuari, aranfarzak afera zifzalzkion.

lehiaketa

le

Zer dago *faltan*, soberan edo aldatuta?




Aurreko txikibarreneko irabazlea: **Hasier Murua**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

JAKIA uuztelupeko Hotsak disketxeak eskainitako CDa.
 (KARIDAEKO BENTA)



Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:
barren@topagunea.com



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 19 Yudego
- 20 Yudego
- 21 Yudego
- 22 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 23 Ibañez
- 24 Bidasolo
- 25 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 26 Fernandez

GAUEZ

- Yudego
- Zabaleta
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

21 igandea Ibarrenea

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzarngoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazma	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H	943 74 41 32
Institutua	
Arreiture	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

Eusko

DONOSTIA-B11130
Egunero
Donostia Am,et, 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

Eusko

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25
Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49•1 Tel: 943 74 11 89

11

Mandiola Egurak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 Tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

berbetan

Elgoibarko EPAk (Helduentzako Eskola) ireki du matrikulazio epea. Urtero bezala, iraila amaiera aldean hasiko ditu klaseak, beraz, interesatuak garaiz daude oraindik izena emateko. EPA duela 10 urte inguru jarri zen martxan Elgoibarren, eta Marian Hernandez bertako arduradunak esan digunez, "urtetik urtera gero eta ikasle gutxiago daukagu". Gaurkoan, berekin solasalditxo bat izan dugu, eta berak kontatu dizkigu Helduentzako Eskolaren gora behera guztiak.



"Jendeari ikasteko beharra daukala errekonozitzea kostatu egiten zaio"

• Noiz eta nola sortu zen Helduentzako Eskola?

10 edo 12 urte izango dira. Eibarren sortu zen eta jende asko joaten zen Elgoibartik klaseak jasotzera. Hemen ere helduentzako eskolak emateko beharra sumatu genuen.

• Zein da gaur egungo EPAREN egoera?

Egoera larrian gaude. Azkenaldian oso jende gutxi dabil. Iaz 22 lagun inguruk eman zuten izena, eta aurten ere, matrikulazio epea oraindik zabalik dago, baina iazko antzera ibiliko gara.

• Zein izan daiteke arrazoia?

Ez dakit. Jende askok dauka ikasteko beharra, baina gehienek ez dute onartzen. Beste batzuk, agian etxeoandreak direlako, ez dute ikasteko beharrik ikusten, baina badaukate. Lehen oso goiz hasten zen jendea lanean, 14 urterekin ikasteari utzi egin zioten gehienek, eta horiek guztiak, lehen ikasitakoa ahaztuta daukate. Ez da beraien errua, beste garai batzuk ziren, eta beste ohitura batzuk zeuden. Hala ere, jendeari kostatu egiten zaio ikasteko beharra daukala errekonozitzea.

• Inguruko herrietan gauza bera gertatu al da?

Ez. Eibarren herri handiagoa denez, jende mordoak joaten da. Debara Mutrikutik ere joaten dira. Elgoibarko egoera larria da eta Eskola desagertu egin daiteke.

• Zein ikastaro ematen dituzue?

Irakurtzen eta idazten ez dakitenentzat alfabetizazio kurtsoa daukagu. Ondoren perfektionamendua, eta azkenik, Derrigonrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua ateratzeko kurtsoa. Bestalde, atzerritarrentzat klaseak ematen ditugu.

• Zenbat orduko klaseak izaten dira?

Astelehenetik ostiralera bi ordu egunero. Bi txanda egiten dira, eta ordutegia ikasleen beharren arabera moldatzen dugu. Graduatua atera nahi dutenek, ordu gehiago sartu behar izaten dituzte.

• Elgoibarren atzerritar ugari dabil azkenaldian, igarri al duzue eskaera handitu egin dela?

Ez. Duela bi urte lau edo bost pakistaniar izan genituen, eta Mongoliako beste bat, baina iaz hiru atzerritar bakarrik etorri zitzaizkigun, eta ezin izan genituen hartu, ez zelako talderik osatu.

• Zenbat irakaslerekin moldatzen zarete?

Orain arte bi irakasleren artean eramaten genuen dena, baina iaz ni bakarrik ibili nintzen, eta aurten ere, seguruenik berdin moldatu beharko gara. Administrazioan ez dute ikasleen maila kontutan hartzen, ikasle kopuruari bakarrik erreparatzen diote, beraz, irakasle bakarra nahikoa omen da. Denak batera biltzen ditut klasean, eta bakoitzari bere mailako lanak ematen dizkiot. Hori bai, hainbat irakasgai emateko, Eibartik bidaltzen dute irakasleren bat, hau da, ingelesa edo matematika maila altua emateko, adibidez.

• Nola animatuko zenuke jendea?

Ikastea beharrezkoa dela esango nieke, baina Helduentzako Eskola, ikastea baino askoz ere gehiago da. Lagun artean batzeko gunea da. Oso giro ona daukagu, txangoak egiten ditugu, kurtso amaierako jaialdia... denetarik. Jende beharra daukagu, eta aspaldi ikasitakoa berriz ere gogoratzeak pena merezi du.

"Egoera larrian gaude eta Heldu entzako Eskola desagertu egin daiteke"

MARIAN HERNANDEZ

Nathalia Mellado elgoibartarrak Raphael abeslariaren koroan abestuko du Urriaren 1 etik abenduaren 8ra luzatuko da Ameriketako bira

Raphael datorren irailaren 25ean itzuliko da eszenatoki gainera. Urtarrilean gibel transplantea egin zioten abeslariari, eta ordutik abestu gabe egon ostean, Madrilgo Zarzuela Antzokian izango da estreinaldia. Jende garrantzitsua gonbidatu dute ekitaldi honetara, besteak beste, Errege Familiako kideak, abeslari, politikoa, aktore, eta kazetariak izango dira bertan.

Nathalia koroan

Nathalia Mellado elgoibartarrak Raphaelen koroan abestuko du. Irailaren 25etik 28ra egongo dira Madrilan, eta urriaren Ameriketara joango dira. Urriaren 1 etik abenduaren 8ra arte luzatuko da Ameriketako bira, eta Kontinente osoa



zeharkatuko dute iparraldetik hegoaldera. Nathalia Mellado berak azaldu digunez, esperientzia oso aberasgarria izango da berarentzat: "Antzoki oso garrantzitsuak bisitatuko ditugu, eta Raphael moduko abeslari batekin abestea sekulako esperientzia da. Ameriketatik eraberrituta itzuliko naiz". Gogor egin du lan elgoibartarrak, baina Nathaliaren hitzetan, "abestiaren mundua oso gogorra da, bertan lan egiteko aukera izatea izugarria da niretzat". Iraila oso hilabete gogorra izan da Nathaliarentzat. Eguneroko entseiatzen zuten Raphaelekin, asteburuetan Madrilgo kortijo batean abesten zuten, eta gainera Manolo Escobarren kontzertuetan ere, parte hartu du: "Lan handia egin dut, baina oso pozik nago", esan digu Nathaliak.

Haritz Dantza Taldeak ez du udan atsedetik hartu Azken dantzaldia Lasturren egin zuten hilaren 13an

Joa zen asteburuan, irailaren 13 eta 14an, eskaini zuen Haritz Dantza Taldeak udako azken emanaldia Lasturren. San Nikolas festen egitarau barnean, Haritzek dantza saioa eskaini zuen larunbatean eta igandean Lasturko gazteek laguntza eskatu zieten Haritz Dantza taldekoei duela urtebete, eta urte osoa entsaiatzen pasatu ostean, igandean erakutsi zuten lan honen ordaina Soka Dantza eginez.

Ez da hau izan, ordea, Haritzek uda honetan egin duen lan bakarra. Uztailaren 24an Elgoibarko Nazioarteko XVII. Folklore Jaialdian dantzatu ostean, Debako Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartu zuen uztailaren 30ean, Debako Gure Kai taldearekin batera.

Abuztuak 4tik 18ra bitartean, Haritz Dantza Taldeko Haritz Arrieta eta Kezkako Ekhi Zugasti dantzariak Irlandan izan ziren Portugaleteko Elai-Alai taldekoekin batera.



Abuztuaren 10ean Sallobenteko jaietan dantzatu zuten. Abuztuak 12 eta 13an "Pas de Basque" ikuskizunaren zati batzuk eskaini zituzten Zugarramurdiko leizeetan, 64. Musika Hamabostaldiaren egitarauaren barnean. Beraiekin batera, Rafael Amargo dantzariak "El amor brujo" dantza saioa eskaini zuen. Ikuskizun honetan Haritz, Kezka eta Gure Kai taldeetako dantzariak hartu zuten parte, beste batzuen artean.

Abuztuaren 16an San Roke auzoko jaietan dantzatu zuten, eta egun berean Debako San Roke jaietan San Roke Dantza eta Soka Dantza egin zituzten Gure Kai taldea osatuz. Azken ekitaldiak San Bartolome jaietakoak izan dituzte: San Bartolome eguneko Soka Dantza, baserritarrei ongi etorria eta Jubilatuen Egunean Dantza Solteko Txapelketa. Beraz, Haritz Dantza Taldekoek oporrak dantzan pasa dituzte.

Aita-semeak Eibarko kirol taldeetan

Angel Garate eta Gorka Garate aita-semeak gogor dabilta azken aldian. Aita atezaina izandakoa da hainbat futbol taldeetan eta pasa den denboraldi amaieratik C.D. Eibar taldeko atezainak entrenatzen dihardu. 18 urteko semeak, berriz, Eibarko Arrate eskubalo taldearekin egin du aurre-denboraldia. Aita-semeek kirolean duten arrakastaren berri jakin nahi izan dugu.



ANGEL GARATE

Atezainen entrenatzailea

"Leku askotan laga ditut lagunak futbolari esker"

C.D. Eibar taldeko atezainen entrena-

tzaillea zara, ezta? Bai. Iaz Blas Ziarreta entrenatzailea bota zaben liga bukatzeko bi jardunaldiren faltan. Zuzendaritzatik behe mailetako atezainen entrenamenduaz arduratzeko deitxu zien, baina ligia amaitzeko gitxi falta zanez, talde nagusiko porteruekin lanian hasi ginan eta salbaziva lortu gendun azken bi partiduak irabazi ostian. Egindako lanakin gustura geratu zian eta aurten talde nagusiko atezainen entrenatzailea naiz.

Zertan datza zure lanak? Lan berezixa eitzen dogu atezainekin. Hiru atezain izaten dira taldean eta beraientzat bereziki prestatutako ariketak eitzen ditxugu. Atezainek beraiek ere nahiago izaten dabe horrela lan ein.

Zer ezaugarri behar ditu atezain on batek? Rreflejuak, arintasuna... atezain guztixek bihar ditxusten ezaugarriak dia, baina honetaz gain lasaixa izatia eta taldeari lasaitasun hori adierazten jakitia oso garrantzitsua da. Eta noski! atezain on batek konstantea izan behar du bere lanean eta egunetik egunera hobetzen saiatu.

Eta udaltzain fin batek? Jendia ezautzia eta traturako erraztasuna eukitzia garrantzitsua da.

Atezain gisa talde askotatik pasatakoa zara, ezta? Bai, Elgoibarko jubenil taldeetik Sansera jun nintzan. Bi urte bertan pasa eta Salamanca, Ciudad Real, Alcoyano, Almeria eta Eibarren bukatu naban karrera duela 15 urte. Futbolari esker Espainia guztia ezagutzeko aukera izan dot eta hori izan da futbolak laga dian politxena, pasa naizen toki guztixetan lagunak laga baititxut.

Zer da zailagoa multak jartzea ala penaltiak geratzea? Bixak dira zailak. Jendiak isunak bakarrik jartzen ditxugula pentsatu arren, isunak jartzia izaten da udaltzainon lanik zailena, herri txikixa izatian denok baikara ezagunak.

Penaltiz gola hutsegitea aurrelariaren errua ala atezainaren tre-bezia? Penalti bat gelditzian atezainak dakala meritua uste dot.

Gaur egungo atezain bat? Asier Riesgorekin oso gustora nabil.

Eta lehengoetako bat? Jose Angel Iribar eta Josetxo Arakistain.

GORKA GARATE

Eskubalo jokalaria

"Munduko eskubalo talderik onenen aurka jokatzeko aukeria euki dot"



Eibarko Arrate Eskubalo taldearekin

egin duzu aurre-denboraldia. Nola sortu zitzaizun aukera?

Bai, hala da. Arrateko zuzendaritzatik deitxu ziaten eta aurre-denboraldi guztixa ein dot eurekin. Iaz ere jubenil talderako fitxatu nahi izan ninduten eta aurten Nazional mailako taldean jokatzeko fitxatu nabe. Aurre-denboraldixa probaketak eitzeko une aproposa danez, talde nagusixakin entrenatzen ibili naiz nola moldatzen nintzan ikusteko.

Nolako esperientzia izan da Munduko ligarik oneneko jokalarien ondoan aritzea? Ahal dotena ein dot eta oso gustura ibili naiz.

Ikusten al duzu zure burua hemendik gutxira Asobal ligan jokatzeko moduan? Zaila da, baina ilusiorik ez zait falta behintzat. Zortea izatea eta une eta leku egokian egotea ere garrantzitsuak dia. Osterantzian, aurrez imaginatzen naban moduko maila topatu dot. Esperientzia handiko jokalarixak zian eta igartzen naban.

Zer da gehien harritu edo atentzioa deitu dizuna? Ez dala berdina hobby bezala hartu edo egunean 4 orduko entrenamenduak egittea. Jokalari profesionalak dia eta beste ikuspuntu batetik ikusten dabe kirol hau.

Aurre denboraldi gogorra izan al da? Bai, uztailearen 28tik abuztuaren 28ra egon naiz talde nagusixakin eta entrenamendu gogorrek izatiaz gain, bero guztixak harrapau genitxun. Jokalari beterrano batzuek inoiz euki daben aurre-denboraldi gogorrera izan dala esaten zaben.

Partidurik jokatzeko aukerarik izan al duzu? Bai, eta zorte handia izan dot, munduko talderik onenen aurka jokatu baitugu uda honetan: Bartzelona, Portland San Antonio eta Ciudad Real. Hilabete baterako gehixo ezin da eskatu. Richardson Portlandeko jokalari frantziarra asko gustatzen jata eta bere aurka jokatu eta agurtzeko zortia ere euki naban.

Pibote postuan jokatzeko duen jokalaria bat? Skrebic Bartzelonako pibotia.

Talde bat? Arrate.

16.000 pertsonok erabili dituzte Mintxetako igerilekuak

Aldagelak eta taberna izango dira hurrengo urteko berrikuntzak

Irailaren 14an amaitu zen Mintxetako aire libreko igerilekuen denboraldia eta datuen balantzea egiteko garaia iritsi da. Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariaren hitzetan orain arteko denboraldirik arrakastatsuenaren izan da. Ekainaren 7an denboraldia hasi zenetik 16.000 sartu-irten kontatu dituzte igerilekuen sarreretan. Guztira, 313 denboraldiko abonua ateratu dituzte jendeak aurtengo udarako. "Pasa den urtean 2.000 sarrera izan ziren denboraldi guztian. Aurten, berriz, egun batzutan 1.200 erabiltzaile izan dituzte igerilekuak eta pentsatzen dugu 2.000 lagunentzat lekua izan dezaketela gaur egun dauden moduan".

Kanpoko jendearen etorrera ere igarri dela aitortu digu Patronatuko zuzendariak, "Azkoititik jende asko etorri izan da eta baita Soraluze eta Bergaratik ere. Arrakasta honen arrazoia aurtengo udako tenperatura altuak dauka. Uraren tenperatura adibidez, 26 gradutako batzuk bestekoan mantendu da. Bestalde, kostaldean agertu den txapapoteak ere eragin zuzena izan du. Bertakoak hemen geratu dira eta kanpokoak hona etorri. Zarautzetik eta Debatik ere jendea etorri dela igarri dugu". Mujikaren hitzetan, igerilekuak herritarren onarpena lortu dutela dirudi: "Iaz lehen denboraldia izateaz gain, eguraldiak ere ez zuen batere



Udako egun batzutan 1.200 pertsonok erabili dute Mintxetako igerilekuak.

lagundu. Instalazio aldetik ere egokituagoa aurkitu dute erabiltzaileek. Aurtengo 3. denboraldia izan da, nahiz eta lehen denboraldian oraindik belarrik egon gabe ireki genuen".

Berrikuntzak

Hurrengo urterako aldagelen eraikuntza amaitzea da Patronatuaren helburua: "Bi aldagela, arropak eta motxilak laga izateko takilak eta biltegi batzuk sartzeko dira aldagelen eraikuntza edo proiektuan. Eta azkenik baita tabernetxo bat ere".

EMAITZAK

Futbola

Haundi **0** - Berio 1 (Pref.)

Elgoibar **3** - Euskalduna 1 (Jub.)

Lagun Onak **4** - Elgoibar **0** (Neskak)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 20

12:00 Elgoibar - Eibartarrak (Neskak)

16:30 Haundi - Anaitasuna (Pref.)

Domekia, 21


10:00 Elgoibar - Mutriku (Aleb.)

12:00 Neskak F-8 - Almen (Neskak)



ESKERTZA

2003ko irailaren 10ean, 74 urte zituela hil zen ANUNCIA QUINTAS FERNANDEZEN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresak garbitzailea behar du. Erref. 108485/1

Urola Erdiko enpresak komertziala behar du. Erref. 108543/1

Donostialdeko enpresak ingeniari tekniko elektronikoa behar du. Erref. 108235/1

lurretako enpresak sukoldari nagusia behar du. Erref. 108319/2

Durangoaldeko enpresak ingeniaria behar du. Erref. 106932/4

Azkoitiko enpresak kaldereroa behar du. Erref. 107131/4

Bilboko enpresak optikoa behar du. Erref. 107471/2

Durangoaldeko enpresak automotzio karrozeroa behar du. Erref. 105242/4

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoiborren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristij 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

Lana

ESKAERA

Emakumea umeak zaintzeko prest. Tr 677 85 82 44

Emakumea etxeko lanak edo garbiketarako egiteko prest. Egun solteak. 12 943 74 22 01

Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Gauzez edo asteburuetan. Esperientziaduna. Ir 627 61 97 82

Emakumea orduka nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Ir 686 60 02 39

Emakumea goizez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Ta. 667 030 717

* Emakumea garbiketara lanak egiteko prest. Tr 943 74 35 05 (Justa)

ESKAINTZA

Astean zehar lan egiteko kamareroa behar da. Tr 699 183 299

o Umeak zaintzeko emakumea behar da. Tst 646 65 37 83/ 943 74 12 24

Barrarako kamareroa behar da. Ir 943 74 31 17

Merkadiloan lan egiteko neska behar da. Tr 626 05 43 16 (Mari Jose)

Tabernarako mutila eta sukalde-rako emakumea behar dira. *a 943 74 04 90

+ Kamareroa behar da. Tr 943 74 42 65

* Neska edo mutila behar da talgerneran lan egiteko. Astegunetan arratsaldean eta asteburuetan txan-claka. Tr 943 74 08 67

Pintura enpresak pintoreak behar ditu. Ir 943 74 15 52/ 606 43 11 19 (9:00-13:00)

+ Mendaroko kafetegirako kamareroa behar da. Ittr 656 73 28 20

Barrarako kamareroa behar da. Ir 615 72 34 80

♦ Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. *a 676 29 49 35

Tabernan lan egiteko neska eskalduna behar da. Tr 943 74 31 17

Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetan barran lan egiteko. 687 05 17 89

Etxebizitzak

♦ Etxebizitza salgai. 98m². Tr 617 96 92 21

+ Pisua alokatzen da Donostian (Amaran) ikasleentzat urritik ekainera. Tr 639 97 19 77

Etxebizitza salgai herri erdian. 3 logela, altzariekin, berritua. Bizitzera sartzeko moduan. s 661 42 60 77

+ 3 neska elgoibartarrek, 3 logelatako pisua hartuko lukete alokairuan. tat 646 61 50 57 (Nekane)

+ Etxebizitza salgai San roken. Altzariekin, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Kanpora begira. tzte 610 29 18 17

♦ Etxebizitza konpartitua behar da. zr 645 70 14 93 (Ion)

Logela alokatzen da. et 943 74 18 81

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. Ir 945 27 87 09

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan. 1T 943 03 03 21 (Mertxe)

Garajeak

♦ Garajea salgai Leku Ederren. tr 659 77 13 63

♦ Garajea salgai Pedro Muguruza 11n. tat 649 91 31 83

+ Garaje marraduna salgai Pista Bel-tzean. 13. 943 74 16 88

Garaje marraduna alokatzen da Leku Ederren. Tr 943 74 01 97

‡ Garaje alokatzen da San Roken. 13. 943 74 14 36

♦ Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, oso sarrera onarekin. Ittr 660 79 53 01

Bestelakoak

Arrasate-Mondragonera egunero goizeko 8:00etan heltzeko kotxea duen pertsona behar dut. Gastuak ordainduko nituzke. Premiazkoa da. Ir 650 27 74 15

♦ San Lazaro egoitzan anplifikadore txiki bat behar da, Bingo eta Kinan erabili ahal izateko. Itat 943 74 02 96

♦ Lore lehorrekin ezkontzetarako oroigarriak egiten ditut. Tr 667 34 85 03

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Partikularrak

♦ ingelesezko klase partikularrak ematen dira Elgoibar eta Mendaron. tztz 943 74 29 84/943 75 52 09

Frantsesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. tat 943 74 42 73

♦ IBabxilergoko, DBh, eta LH-ko klase partikularrak ematen dira. Ir 625 42 05 49 (Olatz)

Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. 0 649 22 11 54

Salerosketak

♦ Scooter 49 cc. motorra salgai. Egoera ezin hobea, tubo eskape berria, beti garajejan egon da. 1T 943 74 34 89

♦ Artzai txakur alemaniarrek salgai pedegree-arekin. st 635 71 54 31

♦ Jilgero mixtoa salgai. Eskuz landua eta hezitua. tat 625 70 80 42

♦ Orbea bizikleta salgai. 2 urte baino gutxiago ditu. Merke. Tr 943 74 28 83

Citroen Xsaara salgai. TD. 3 urte. 12. 630 49 03 55

♦ Spanier arrazako txakurkumeak salgai. Ehizara ohituak dauden gurasodunak. Merke. Tr 609 07 97 97 (Aitor. 18:00etatik aurrera)

Ford Orion 1800, 16v salgai. 41.000 km, 11 urte. T7 943 74 09 44

Renault Clio 1.2, salgai. 7,5 urte, 115.000 km. 2.100 euro. 653 01 10 43

* Suzuki GS 500 salgai. 2001. urtekoa. Ir 660 42 48 55

♦ Maxi-cossi bat saltzen dut. Egoera onean. Sako guztia oparitzen dut. Tr 943 74 04 46 (21:00etatik aurrera)

♦ Citroen AX salgai. SS-Z. 300 euro. Tr 649 01 81 99 (Pedro)

♦ Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektriko, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. tat 616 26 62 12

‡ Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110CV. Zilar kolorekoa, beti garajejan. 71 616 26 62 12



Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
Tel. 943 741 461

Ordutegia:

Astearte-ostiral: 16:00-20:00

Agurrak



• Zorionak begi urdin, urtebete bete dozulako. Muxu handi bat Ikastolako lagunxoen partez.



• Zorionak Nekane zure urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, Mikel eta Oihaneren partez.



• Zorionak Aitor Solozabali, irailaren 24an, 4 urte beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki, Natali eta Nerearen partez.



• Zorionak Itsasol Gaur, hilak 19, 16 urte bete dituzu. Ea horren maja jarraitzen duzun. 16 tirakada eta mila muxu zure ama eta anai-arreben partez.



• Zorionak Petri, gaur, hilak 19, urteak bete dituzulako. Eider eta Goizeder zure iloben partez. Muxu asko zuretzat.



• Zorionak Nieves Martinez, irailaren 22an urteak beteko dituzulako. Lagunen partez, egun ona pasat!



• Zorionak Marc, hilaren 22an, 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta aitxixa eta amama ren partez.



• Zorionak Goizeder, abuztuaren 4an urtebete egin zenuelako. Gurasoen eta bereziki, Eiderren partez.



• Zorionak Kattalin, hilaren 23an 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak Valentin Gorrotxategi, abuztuaren 16an urteak bete zenituelako. Elgoibarko Jubilatuen Egoitzako batzuen partez.



• Zorionak amama Lolitari eta Mikel Txapeldunari. Familiako guztien eta bereziki, Oihaneren partez.



* Zorionak laukote! Oporrak pasatu arren ez gara zuen urtebetetze egunaz ahaztu. Muxu handi bat Ikastolako lagunxoen partez.

BEKAK

Artistak

Injuri-k artista gazteek euren ikasketak eta prestakuntza sakontzeko bekak eskaintzen ditu, haiei ospe handiko arte-ikastegi espezializatuetan ikasteko aukera cinanez. Epea: Urriak 12.

Ikerketa

Irungo Udalak Jose Antonio Loidi ikerketa-bekak antolatuta ditu ondorengo ikerketa-arloetarako: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika, Epea: Urriak 26.

IKASTAROAK

Neguko ikastaroak

Donostia Kulturak arte plastiko, arte eszeniko, irudi, soinu eta komunikazioa, autoezagutza eta osasuna, eta abarrek neguko ikastaroak antolatuta ditu. Epea: irailak 26.

Geriatria

Ermua eta Eibaroko Gurutze Gorriko prestakuntza zentroak geriatria ikastaroa antolatuta du irailaren 29tik urriaren 17ra Ermuan. Ordutegia: 19:00-21:00 asteleheneetik ostiralera. Epea: plazak agortu arte.

JAROUERAK

Elkartuea

Euskal Interkultura erakundeak 15-18 urte bitarteko gazteek atzerrian ikasteko programak prestatzen ditu, eta ikasle atzeritarrek eurenean hartuko dituzten famili bila dabil.

LANA

Musika irakasleak

Donostiako Udala Musika eta Dantza Eskolak ondorengo lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketa deialdia egin du: txistulari-irakaslea, bi tronpetajole, hibolínko irakaslea, soinu eta informatikako teknikaria. Epea: irailak 26.

Disneyland Paris

Disneyland Parisek aldi baterako lan kontratuak eta mugagabeak eskaintzen dizkie frantsesa dakiten 18-30 urte bitarteko gazteei garbiketa, ostalaritza, salmenta eta bestelako lanpostuetan. 1138 euro gordin hilean. Epea: irailak 29.

Ostalaritza

Vorarlbergen (Austria) alemana dakiten 18tik 30 urtera bitarteko 400 gazte behar dituzte zerbitzari, sukaldari, sukaldelako laguntzaile eta bestelako lanetarako. Enpresariak ostata jartzen du. 1000tik 16000 eurora hilabetean. Epea: irailak 26.

20 ZAPATUA

11:00 TXANKAKUA MERKATARI
ELKARTEAREN JAIALDIA
Plaza Handian
Antolatzailea: Txankakua Merkatari
Elkartea

Aiastia auzoko

~111A■A 110C_

IRAILAK 26, barixakua

18:30 Kanpai jotze eta txapligu botatzea.
19:00 Poteoa bizikletan.
21:30 Gazte afaria.
00:00 Disko festa.
Goizaldera, "Striptease"-a.

IRAILAK 27, zapatua

17:00 Euskal Herriko Artzai Txakur Txapelketa.
22:30 Haritz Euskal Dantzari Taldearen erakustaldia.
Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.
01:00 Bolo Txapelketa.

IRAILAK 28, domekia

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, ahari topekia, Baltzola anaiak trikitilariak alaituta
17:00 idi Demak, Soarte, iketza eta Eskutusalorekin.

IRAILAK 29, astelehena

SAN MIGEL EGUNA

11:00 Meza nagusia.
Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak.
13:00 Auzoko Bikoteen Arteko XX, Pilota Txapelketaren finala.
20:30 Auzotarren afaria.
Ondoren, Gardokirekin erromeria.

ONARRAK

Disko Festaren egun aldaketa
Azken orduko aldaketak direla-eta, Elgoibarko Udalaren Batzordeak antolaturiko Disko Festa irailaren 27an izan beharrean urriaren 1ln izango da Madalako parkean. 2002. urtean Euskadi Gaztea irrati emisorak modan jarri zuen Disko Festa Euskadiko hainbat herritan izan da eta arrakasta handia lortu du. Eta urriaren 1ln Elgoibarren izango dugu Disko Festa Joseina Etxeberría DJarekin.

IRTEERAK

Otzaurtetik Arantzazura mendi irteera

Mendaroko In leike elkarteal "Otzaurtetik Arantzazura Aizkorritik" mendi irteera antolatu du irailaren 28rako igandea. Autobusak Otzaurtera eramango ditu mendizaleak, gero Aizkorritira igo eta Urbiara jaisteko, Urbiako fondan bazkalch. eta Arantzazun amaituz. Han autobusi hartu eta etxera! Irteeraren prezioa eurokoa da 20 euro ikasle et.2 langabetuentzat. Dirua In Leikek Kutxar duen kontuan sartu behar da irailaren 24 baino lehen. Irteera estaziotik izango goizeko 8:00etan.

Erlo-Xoxotera mendi irteera


Datorren domekan, irailaren 21ean Ikastolako ikasleentzako eta gurasoentzako mendi irteera antolatu da. Aittolatil abiatuko dira izena ematen dutenak eta Erlo eta Xoxote mendietara igoko dira.

EUSKARA

Mendaroko euskaltegia

"In Leike" elkarteal, Udaletxea eta AEK-ren laguntzaz, aurren ere euskaltegia martxan jartzekotan da Mendaron. Printzipioz maila desberdinetako klaseak eskeintzen dira goiz, arratsalde nahiz gauez. Iaz bezala langabetu, ikasle eta gurasoek matrikularen erdia bakarrik ordaindu beharko dute eta kurso bukaeran asistentziaren araberrako beka sistema aplikatuko da, Matrikulatzen interesatua dagoena edo informazioa jasotzea nahi duena gertura dadila konpromisurik gabe in leike-ren lokalera (Goñati pilotalekua 3. Solairua). Orduategia: Astelehen, Asteazken eta Ostiraletan 19:00 - 20:30. Edonola ere edozein zalantza duenak honako telefonora dei dezake: 605754017. Matrikulatzeko azken eguna Irailak 26, Ostirala, da.

ZINE
kluba




"Bowling for Columbine"

Zuzendaria: Michael Moore
Ikuslarch Perla Saria (Zabaltegi, 2002 Donostiako Jaialdia)
Filme Dokumental Onenaren Oscar Saria 2002
Cannesko Zinemaldiko Sari Nagusia

"La bici de Ghislain Lambert"

Zuzendaria: Phillippe Hsrel.
Gidoirik onena (2001 Donostiako Jaialdia)



KINTOAK

42ko kintoak

1942. urtean jaiotako elgoibartarrek urriaren 25ean ospatuko dute kinto bazkaria Sigma jatetxean. Joan nahi dutenek 30 euro sartu beharko dituzte urriaren 18a baino lehen, honako kontu zenbakian: 3035 0007 2 5 0071029319 (Euskadiko Kutxa). Hil bakoitzeko 10etik 25era bitartean bakarrik sartu ahal izango da dirua.

KIROLA

Mintxeta Atletismo Taldea

Aurreko urteetan bezala, kurtso hasiera dela eta, Mintxeta Atletismo taldeak berriz irekiko ditu ateak irailaren 22an, astelehenean, atletismoarekiko interesa duten neska-mutil guztientzat. Beti moduan entrenamenduak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira 19:00etatik 20:00ak arte Mintxetako pistetan.

TAILERRAK

Kannabisari buruzko tailerra

Errotatzok Cannabisari buruzko tailerra antolatu du Danobat, Goiti eta Diputazioaren laguntzarekin. Ziurrenik datorren ostegunean, irailaren 25ean, izango da Gaztetxean. Sarrera dohanekoa izango da. Izena emateko edota informazio gehiago nahi izanez gero, 615 71 31 01 telefonora deitu. Bestela Errotatzok Pedro Muguruzan duen egoitzara joan, asteazkenetan 17:00etatik 20:00etara. Edo errotatxo@telefonica.net helbidera idatzi.

IKASTAROAK

Masaje ikastaroa

Surya belardendak oinarritzko masaje ikastaroa eskainiko du. Bertan, masaje teknika desberdinak irakatsiko dituzte. Datorren irailaren 27an, zapatuan, hasiko da eta 9 larunbatez luzatuko da. Klaseak goizeko 10:00etatik 12:30etara izango dira. Belardendan bertan eman daiteke izena edo honako telefono hauetara deituz: 943 74 25 34 edo 626 795 024.

Marrazketa ikastaroa

Egur Arte Tailerrak marrazketa ikastaroa eskainiko du urriaren 13tik 31ra bitartean Udaleko kultura sailaren laguntzaz. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara izango dira klaseak eta izen ematea honako helbidean egin daiteke: Aita Agirre plaza, 3. rrdiko atea, 2. pisua (18:00-20:00).

Garapen pertsonalerako ikastaroa

Haizea Emakume Taldeak garapen pertsonalerako ikastaroa antolatu du Emakunderekin elkarlanean. Eskarne Larrinaga psikologo eta sexologoa izango da hizlaria eta urriko lehen egunean hasiko da ikastaroa. Asteazkenero izango da zita 16:30tik 18:30era bitartean.

1:11.11R zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Como Dios"

19, barixakua: 22:15

20, zapatua: 19:30-22:15

21, domekia: 19:30-22:15

22, astelehena: 22:15

"Bowling for Columbine" (Z.K.)

23, martitzena: 22.15

25, eguena: 22.15

"La bici de Ghislain Lambert"
(Z.K.)

26, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Jeepers Creepers H"

19, barixakua: 19:30-22:15

20, zapatua: 19:30-22:30

21, domekia: 19:30-22:30

22, astelehena: 19:30-22:15

23, martitzena: 19:30-22:15

24, eguaztena: 19:30-22:15

"Papa Canguro"

20, zapatua: 17:00

21, domekia: 17:00

ETORRI DIALO

"Un sueño para ella"

19, barixakua: 19:30-22:15

20, zapatua: 17:00-19:30-22:15


21, domekia: 17:00-19:30-22:15

22, astelehena: 19:30-22:15

23, martitzena: 19:30

24, eguaztena: 19:30

BARRENeK ez du getta litezkeen ernanaldien
akinketen crint7111<imnik



"Como Dios"

Zuzendaria: Tom Shadyac.

Antzezleak: Jim Carrey, Jennifer Aniston, Morgan Freeman.

Bruce (Jim Carrey) Buffaloko telebista lokaleko erreportaria da. Lantzen dituen giza interes eta umorezko istorioengatik da ezaguna. Honek mundu guztia egiten du zoriontsu, baina bera ez. Brucek nahiagoko luke albiste garrantzitsuagoak kubritzera bidaliko balute, nazioartean pil-pilean dauden gaiak eta horrelakoak. Egun txar batean hanka sartuko du airean dagoen bitartean eta kaleratu egingo dute.

N

r
1:



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1958. urte ingurukoa da argazkia, eta San Bartolome jaietako egun baten aterata dago. Argazkian ikusten dugun koadrila honek arrantzarako zaletasun handia zeukan, eta makina bat aldiz hartzen zuen parte arrantza txapelketa desberdinetan. Argazkia Kondeneko tabernan aterata dago.


Gogora dezagun zein diren argazkian azaltzen diren gazte hauek.

Ezkerretik eskumara: Jose Jaio, Anjel Azkue (t), Fernando Marcos (t), Amador Gonzalez, Rafael Kortaberria eta atzean ikusten den gizona Maximo Konde (t) tabernari ospetsua izandakoa dugu.




ESKERTZA

2003ko irailaren 8an, 73 urte zituela hil zen
LUIS ETXANIZ OSOROren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko irailaren 10ean, 89 urte zituela hil zen
BENEDICTA AROCENA ECHAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEI-BIDE

AUTO ESKOLA



K#1 agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria



ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

an Frantzisko, . so atrua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

2003-2004 IHASTURTEKO EUSHARA IKASTAROA



oporren ostean indarra beharko duzu... eushara beti!

despdes de las vacacwnes necesitaris rUefZdS iel eushera lo necesitarOs siempre!

MATRIKULA DUAN ERE IZAN DEZAKEZU!

DAL
EUSKALTECIAK

Eskaintza:

Eushal.duntze maila guztiak Alfabetatzea, EGA
Hizhantz Eskakizunah

Iraupena:

Erritmoak:

Bi ordu egunean
Ordu eta erdi egunean

Ihastaro bereziah:

Gurascah, Erakunde finantzarioak, Enpresah,
EGA ikastaroa larunbatetan, Mintzapralitika ikastaroah.

Ordenagailu gela:

HEZINET, ordenagaiLu bidezho programa osagarri

16 urtetik goral-soentzat

Beha Sistema. Galde ezazu!

Matrikulatzeho epea:

IraiLaren letih 26ra.

Bulego ordutegia:

ELGOIBAR: 09:00-13:00 15:30-19:30

DEBABE Udal Euskaitegien Mankomunitatea

Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • elgoi.euskalCci udal.gipuzkoa.net



ELGOIBARKO AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOAN

2003ko JAIK

IRAILAK, 26 - Ostirala "GAZTEEN EGUNA"

1 8:30 Kanpai jotze eta txafliaguak botatzea
auzotarrei jaien hasiera adieraziz.

1 9:00 POTEOA BIZIKLETAN

2 1:30 GAZTE AFARIA

24:00 DISKO FESTA

Goizaldera "STRIPTEASE"

IRAILAK, 27 - Larunbata

I 7:00 Euskal Herriko arraza libreko

ARTZAI TXAKUR TXAPELKETAKO FINALA

Partaideale

- Peio Pagadizabal (Aia) *Alai* txakurrarekin
- Peio Pagadizabal (Aia) *Txutxi* txakurrarekin
- Jose Ramon Orbegozo (Arantzazu) *Alai* txakurrarekin
- Victor Bengoetxea (Barakaldo) *Luki* txakurrarekin
- Imanol Etxeberria (Zeanuri) *Bizkor* txakurrarekin
- Carlos Pinedo (Catadiana) *Xuster* txakurrarekin
- Manuel Perez (Labastida) *Bat* txakurrarekin
- Oskar Martinez (Hiriberri) *Fany* txakurrarekin
- Felix idigoien (Amaiur) *Satur* txakurrarekin

22:30 HARITZ DANTZA TALDEAREN erakustaldia

Ondoren, ERROMERIA LUHARTZ TALDEAREKIN

0 :00ak aldera BOLO TXAPELKETA

Sariak:

1. saria: Motoserra

2. saria: 70 euro

3. saria: 50 euro

4. saria: 25 euro

5. saria: 15 euro

6. saria: S orpresa

Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

IRAILAK, 28 - Igandea

:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, adari topekia, BALTZOLA ANAIK
trikitilariak alaiturik.

17:00 IDI DEMAK

SOARTE (Elgoibar)

IKETZA (Markina)

ESKUTUSULO (Etxeberria)

Sariak:

1. saria: 750 euro eta garaikurra

2. saria: 660 euro eta garaikurra

3. saria: 600 euro eta garaikurra

IRAILAK, 29 - Astelehena

:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, ZIARDA eta MAÑU bertsolariak.

I 3:00 Auzoko bikoteen arteko

XIX. Pelota Txapelketaren azken partidua.

GARDOKI trikitilariak

20:30 AUZOTARREN AFARIA

Ondoren, ERROMERIA GARDOKI taldearekin.



Oharra:

Aparkalekin egorrg'o Antolotiaileak ez dira
gerta daitzkeen ezbeharrAtaz arduratuko.



Laguntzailea
Elgoibarko
udala